

EGK-k “Saharar gazteria ahalduntzen” bideoa aurkeztu du

- Gasteizen egindako jardunaldian euskal eta saharar gazteen arteko elkartrukea bultzatu du.

Gasteizen, 2018ko martxoaren 21ean. Gaur arratsaldean, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), Arabako SEADen Lagunen Elkartearen laguntzarekin, “**Gazteriaren parte-hartze aktiborantz: Sahara-Euskadi esperientzia-elkartrukea**” ekintza ospatu du Artiumeko Plaza Gelan, Gasteizen.

Jardunaldia *Saharako gazteria ahalduntzen* bideoaren proiektioarekin hasi da. Maialen Olabek, EGK-ko presidentek azaldu duen bezala, bideo honek pasa den urtean EGK-k, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin, Kataluniakoarekin eta Espainiako Gazteriaren Kontseiluarekin batera, Tindouf probintzian kokatutako Saharako errefuxiatuen kanpamentuak egindako bidaiaren ondorioak jasotzen ditu.

Bidaiaren helburu nagusia Saharako kanpamentuetan formakuntza bat ematea izan zen, gazte kontseiluek elkartegintzan eta parte-hartzean egiten duten lana Saharako gazteei helarazteaz gain, hauek egunerokotasunean aurkitzen dituzten erronkei aurre egiteko tresnak ematea zen.

Atzoko ekitaldian, bideoak piztutako gogoetatik abiatuz, mahai inguru bat burutu zen, saharar gazteek gizartean aktiboki parte-hartzeko dituzten oztopo eta erronkei buruz hitz egiteko. Marta Poncek, Arabako SEADen lagunen elkartetik, Luchaa Saleh-ek, UJSARIOtik eta Feya Saleh-ek, Euskadiko ikasle gazteen ligatik mahaian parte hartu zuten.

Bukatzeko, jardunaldia dinamika parte-hartzaile batekin bukatu zen, World Te, non publikoko jendea talde txikitan bildu ziren elkarrizketa sare informalak osatzeko, komunikazioa ahalbidetzeko, baita esperientziak trukatzeko ere. Gazteen parte-hartzea ahalbidetzeko proposamen eta errefortzuak aurkitzeko balio izan zuen.